

**Ebazpena: R047/2024**  
**Espedientea: E030/2021**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea eta Sofia Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Hauxe da hartu duten

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, LEk 2016ko lehen, bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) konturako atxikipenak ordainarazteko eskumenari buruzkoa (pentsioengatik lan-etekinen eta hartzeko pasiboen kontzeptuarekin eginak). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen 30/2021 espediente-zenbakiarekin.

## **AURREKARIAK**

- 1.-** LE borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bat da, eta Arrasaten (Gipuzkoa) ditu helbide soziala eta fiskala.
- 2.-** LEk Langile Autonomoen Araubide Bereziaren bidez, berezko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoarenak ordaintzen ditu, eta atxikipenak egiten ditu ordaindutako prestazioon gainean.
- 3.-** 2020ko otsailaren 11n, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak LEri jakinarazi zion egiaztapen- eta ikerketa-ikuskapen-jarduerak abiarazi zituela, egiaztatzeke ea bete zituen zerga-betebeharrak 2016ko ekitaldiko lan- eta lanbide-etekinen konturako atxikipen eta diru-sarreraren kontzeptuagatik.
- 4.-** 2020ko urriaren 19an, ZAEAREN Ikuskaritzak adostasun-aktan dokumentatu zuen bere ikuskapen-jarduera, eta eskumenik gabeko administrazioan ordaintzeari buruzko txostena egin zuen (administrazio erkidean/foru-administrazioan).

Jarduketetan zehar, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egiaztatu zuen LEk ordainketak egin zituela lurralde erkidean egoitza fiskala duten pentsiodunei egindako pentsio eta hartzeko pasiboengatik prestazioengatik, kontuan izanik pentsiodun horiek ZAEArri aurkeztu ziotela PFEZren aitortpena eta haien atxikipenak GFAn aitortu eta ordaindu zirela —orotara 24.403,20 euroko atxikipenak—.

Era berean, aipatutako ikuskapen-jarduketetan egiaztatu zen LEk ordainketak egin zituela Gipuzkoan egoitza fiskala duten pentsiodunei egindako pentsio eta hartzeko pasiboengatik prestazio kontzeptuarekin. Egiaztatu zen, orobat, pentsiodun horiek Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu ziotela PFEZren aitortpena, eta erakundeak oker aitortu eta ordaindu zituela atxikipen haiek Zerga Administrazioko Estatu Agentzian —orotara 10.123,68 euroko zenbatekoa—, diru-sarrera haiek Gipuzkoako Foru Aldundiari egin beharrekoak baitziren.

**5.-** 2020ko azaroaren 24an, Zerga Administrazioko Estatu Agentzia bidalitako txostena jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eskumenik gabeko administrazioan ordaintzeari buruzkoa (administrazio erkidean/foru-administrazioan). Txosten hartan, 14.279,52 euroko saldoa eskatzen zen (ZAEAREN aldeko saldo garbia, GFAn oker sartutako atxikipenen soberakinagatik, ZAEAn oker sartutako atxikipenak deskontatu ondoren).

**6.-** 2021eko otsailaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021eko otsailaren 1eko erabakia igorri zion ZAEArri. Haren bidez, partzialki onesten zen ZAEAK helarazitako bidalketa-eskaera. Hala, baietsi egiten da 2016ko laugarren hiruhilekoari dagokion bidalketa-eskaera, eta, aldiz, ezetsi egiten da Gipuzkoako Foru Aldundian 2016ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoengatik sartutako zenbatekoak itzultzea, kontuan izanik lau urte baino gehiago igaro direla itzulketa eskatzeko eskubidea hasi zenetik ZAEAK jarduketarik egin gabe —ez behintzat GFARI jakinarazitakorik—.

**7.-** 2021eko martxoaren 30ean, ZAEAK inhibizioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Ekonomia Itunaren 7.Bat.b) eta 12. artikuluetan xedatutakoaren arabera, onar zezan ZAEAK duela eskumena eskatu ahal izateko LE erakundeak 2016ko ekitaldiko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan lurralde erkidean egoitza fiskala duten eta GFAn oker sartu diren pentsiodunei eta hartzeko

pasiboen hartzaileei egindako PFEZaren konturako atxikipenen saldoa, eta, hala, ZAEArri itzul ziezaion saldo hori.

**8.-** 2021eko apirilaren 29an, Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEArri jakinarazi zion uko egin ziola jasotako inhibizio-errekerimenduari, eta berretsi egin zuen eskaeraren ezespena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak iritzi zion jada igarota zegoela 4 urteko epea zergapekoak 2016ko ekitaldiko lehen, bigarren eta hirugarren hiru hilekoei zegozkien atxikipenak ordaindu zituenetik, eta, ondorioz, preskribatuta zegoela Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren kreditu-eskubidea, hiruhileko horiei egotz zekiekeen sortari zegokionez.

**9.-** 2021eko maiatzaren 27an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

**10.-** 2024ko apirilaren 1ean, azken alegazioen izapidean, ZAEAk eskatu zuen jo zezatela atzera egintzat 30/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zeinak Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari

dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Zergak ordainarazteari dagokion araudi aplikagarria.

Hauxe dio Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 7.Bat.b) artikulua:

«Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago».

Bestalde, Ekonomia Itunaren 12. artikuluan, hauxe adierazten da konturako ordainketen eraginkortasunari dagokionez:

«Jasotzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako ordainketek balioko dute. Baina horrek ez du esan nahi, ordainketa horiek eskudun ez den administrazioari eginda ere, beste administrazioak berari dagokion kopurua jasotzeari uko

egin behar dionik; azken horrek kopurua emateko eskatu ahal izango dio sarrera jaso duen administrazioari».

Beraz, eskumenik ez duen administrazioan sartutako atxikipenek 2016ko ekitaldiko PFEZaren ondorioetarako balio dute, nahiz eta haren eskumena beste administrazio bati dagokion. Hala, PFEZ ordainarazteko eskumena duen administrazioak erreklamatu ahal izango ditu eskumena ez duen administrazioari ordaindutako atxikipenak.

### 3.- Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera bat aurkeztu zuen 2024ko apirilaren 1ean, 30/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat jotzeko, zergapekoak pentsio eta hartzeko pasiboengatik 2016ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikipenak eskatzeko eskumenari dagokionez.

Azaldutako aurrekariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje Batzordearen ebazpenak eta Auzitegi Gorenak gatazkaren xedearekin lotutako preskripzio-gaiei buruz emandako epaiak ikusita, eta espedientean bildutako dokumentazioa aztertu ondoren, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak irizten dio igaro dela lau urteko epea zergapekoak 2016ko ekitaldiko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkien atxikipenak sartu zituenetik, eta, ondorioz, preskribatuta dagoela ZAEAREN kreditu-eskubidea ordainketa haiei dagokienez.

Horrenbestez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eskatu zuen onar zezatela berak atzera egitea LE sozietateak 2016ko ekitaldiko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkien zenbatekoak erreklamatzeko duen eskubideari dagokionez, iritzirik preskribatuta zegoela hura eskatzeko eskubidea, eta, ondorioz, ezin zela aitortu eskubide hori.

Prozedura amaitzeko modu gisa atzera egitea jasota dago Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPPEL) 84. artikuluan, eta aplikatzekoa da, kontuan harturik betiere Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua egindako igorpena.

Illo horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, ez baita ageri edo ez baita pertsonatu hirugarren interesdunik prozeduran, eta gatazkan sortutako auzia ez baita ez interes orokorrekoa eta ez baita komenigarria definitzeko eta argitzeko bideratzea.

Ondorioz, ebazpen hau ematen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKI DU**

- 1.- Onartzea ZAEAk 30/2021 gatazkan atzera egitea.
- 2.- 30/2021 gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egin eta, ondorioz, prozeduraren xedea galdu delako.
- 3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta LEri.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.